

Ebazpena: R19/2016

Espedientea: 53/2015

Vitoria-Gasteiz, 2016ko azaroaren 4a,

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Kontzertu Ekonomikoko Arbitraje Batzordeak, Gabriel Casado Ollero batzordeburuak eta Isaac Merino Jara eta Javier Muguruza Arrese batzordekideek osaturik dagoenak,

ERABAKIA HARTU DU

Bizkaiko Foru Aldundiak Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren aurka aurkeztutako eskumen-gatazkari buruz. Gaia: 2008tik 2010era bitarteko ekitaldietako Balio Erantsiaren gaineko Zergari dagokionez Zerga Administrazioko Estatu Agentziak 1. ERAKUNDEA erakundeari formalizatutako akta bakarrak. Gatazka hori Arbitraje Batzorde honen aurrean izapidetu da 53/2015 zenbakiarekin, eta Gabriel Casado Ollero jaunak txostengile gisa jardun du.

I. AURREKARIAK

1.- 2015eko abenduaren 29an, Bizkaiko Foru Aldundiko Koordinaziorako eta Laguntza Teknikorako zuzendariordeak, egun horretan bertan Ogasuneko zuzendari nagusiak, Bizkaiko Foru Aldundia ordezkatzuz, hartutako erabakia egikaritzeko, eskumen-gatazka aurkeztu du Arbitraje Batzordearen aurrean, Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren aurka agentzia horrek 1. ERAKUNDEA erakundeari 2008tik 2010era bitarteko ekitaldietako Balio

Erantsiaren gaineko Zergari buruz formalizatutako akta bakarrei dagokienez, aipatutako zergan erakunde-taldearen araubide bereziaren inguruan.

Azaltzen dituen aurrekariak eta zuzenbideko oinarriak aintzat hartuta, Bizkaiko Foru Aldundiak Arbitraje Batzordeari eskatu dio jarritako gatazka onar dezala eta baiets dezala eta «deklara dezala 2008tik 2010era bitarteko ekitaldietako Balio Erantsiaren gaineko Zergari dagokionez, aipatutako zergan erakunde-taldearen araubide bereziaren inguruan Zerga Administrazioako Estatu Agentziak 1. ERAKUNDEA erakundeari formalizatutako akta bakarrak ez daudela behar bezala arrazoituta lurralde bakoitzean egindako eragiketa kopuruaren ehunekoak aldatzeari dagokionez, eta horrenbestez, deklaratu behar da aipatutako aldaketa Zuzenbidearen kontrakoa dela».

2.- Espedienteak honako aurrekari hauek ditu:

- a) 2015eko urriaren 7an, Zerga Administrazioako Estatu Agentziak eta Euskal Autonomia Erkidegoko foru-aldundiek bilera bat egin zuten 2006ko maiatzaren 18an lantaldeek hartutako erabakietan adostutakoa betetzeko. Bilera horretako aktan, akta bakarrei eta zerga-kontrolari dagokien zatian, jaso zen Bizkaiko Foru Aldundiak adierazi zuela ez zegoela ados Estatuak 2013ko ekitaldian, 2008-2010 urteetako Balio Erantsiaren gaineko Zerga dela-eta 1. ERAKUNDEA erakundeari formalizatutako akta bakarrak sartzearekin, Kontzertu Ekonomikoaren Batzorde Mistoaren 2007ko uztailaren 30eko 1/2007 Aktaren hemezortzigarren erabakian ezarritakoa betez. Horrenbestez, aipatutako akta kendu egin zen truketik, eta aparte izapidetu behar da.
- b) 2015eko urriaren 27an, Koordinaziorako eta Laguntza Teknikorako Zuzendariordetzan jaso zen txostenean, Bizkaiko Foru Aldundiaren Ikuskapen Zuzendariordetzak eskatu zuen Ogasuneko Zuzendaritza Nagusiak dagokion inhibizio-eskaera egiteko Zerga Administrazioako Estatu Agentziari, uste duelako, 2013ko ekitaldian, 2008tik 2010era bitarteko ekitaldietako Balio Erantsiaren gaineko Zergari dagokionez,

aipatutako zergan erakunde-taldearen araubide bereziaren inguruan, 1. ERAKUNDEA erakundeari formalizatutako akta bakarrek «ez dutela behar bezala justifikatzen Estatuaren Administrazioari desoreka sortuko zaionik erakunde-taldearen mendeko sozietate jakin batzuek beren aitortpenak Bizkaiko Foru Aldundian aurkezteagatik banakako ereduak erabiliz erakunde taldearen berezko ereduak erabili ordez (322. eta 353. ereduak). Ikuskapen Zuzendariordeak adierazi zuen aktetan lortutako ondorioak ez datozela bat indarreko Kontzertu Ekonomikoaren 29. artikuluan erakunde taldearen araubide berezirako ezarritakoarekin; izan ere, akats formal huts bati garrantzi gehiago ematen zaio gai horri buruz Kontzertu Ekonomikoan ezarritako aginduzko arauak aplikatzeari baino».

- c) 2015eko azaroaren 3an, Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren zuzendari nagusiak Bizkaiko Foru Aldundiaren Ogasuneko zuzendari nagusiak adostutako inhibizio-errekerimenduaren berri izan zuen, baina errekerimendu horrek erantzunik jaso ez duenez, Arbitraje Batzordearen Erregelamenduan ezarritakoaren arabera, ezetsizat hartu behar da isilbidez.
- d) 2015eko abenduaren 29an, Bizkaiko Foru Aldundiaren Ogasuneko zuzendari nagusiak, Koordinaziorako eta Laguntza Teknikorako zuzendariordeak proposatuta, erabaki zuen Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren aurkako gatazka jartzea, eta gatazka hori egun horretan bertan geratu zen erregistratuta Arbitraje Batzordean.

3.- Bizkaiko Foru Aldundiak gatazka azaltzeko egindako idazkian azaltzen duenaren arabera:

- a) Zerga Administrazioako Estatu Agentziak 2015eko uztailaren 13an igorri zion txostenean xedatzen da Foru Ogasun honek euroko zenbatekoa, 2008., 2009. eta 2010. urteei dagokiena, zor diola Zerga

Administrazioko Estatu Agentziari, honako inguruabar hauetan oinarrituta:

- 1.) Ikuskatzaileak 0194/08 zenbakiko BEZ taldearen egiaztapena egin du. Talde horretan nagusitzen den erakundea 1. ERAKUNDEA erakundea da (IFZ: A000000000).
 - 2.) Aipatutako taldeko erakundeei dagokienez, hau da, zergak ehuneko ehunean Zerga Administrazioako Estatu Agentzian ordaintzen dituzten erakundeei dagokienez, zerga-ordainketaren ehunekoak ez dira aldatzen.
 - 3.) Zergak lurralde erkidean eta Foru Aldundietan eta Nafarroako Autonomia Erkidegoan proportzionalki ordaintzen dituzten talde honetako erakundeei dagokienez, egiaztatu da foru-lurraldeetan ez dituztela 322. ereduak aurkeztu, baizik eta diru-sarrerak egin dituztela, itzultzeak lortu dituztela eta denboraldi bakoitzaren amaieran konpentsatzeko zenbatekoak kontsignatu dituztela dagozkien Foru Aldundietan eta Nafarroako Autonomia Erkidegoan 320. edo 303. ereduen bitartez.
 - 4.) 0124/08 Erakunde Taldeak 353. eredua aurkeztu du lurralde erkidean, baina ez du aurkeztu Foru Aldundietan eta Nafarroako Autonomia Erkidegoan.
 - 5.) Horregatik guztiatik, Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren Ikuskatzailetzaren aktuarioek sartu diren, itzuli diren eta konpentsatu behar diren zenbatekoak erakunde taldeak egin izan balitu bezala aplikatu dituzte.
- b) Bizkaiko Foru Ogasunak aktaren eta zabaltzeko txostenaren edukia aztertu ondoren, eskatu zuen Zerga Administrazioako Estatu Agentziarentzat sortzen zen finantza-desoreka gehiago azaltzeko, desoreka hori honako arrazoi honengatik sortzen baita: erakundeek eragiketa kopuruari dagokionez beren zerga-betebeharrak 320. edo

303. ereduak aurkeztuz bete dituztelako erakunde taldeari dagozkion 322. eta 353. ereduak erabilia aurkeztu ordez. Argitzeko eskaeraren oinarria honako hau zen: Kontzertu Ekonomikoaren 29. artikulua 7. zenbakian biltzen diren aginduen arabera, erakunde taldea osatzen duten erakundeen banakako aitortpenetatik ateratzen diren zenbatekoak elkarren artean soilik konpentsatuko dira baldin eta Zerga Administrazio berari badagozkio.

- c) Bizkaiko Foru Aldundiaren ustez, «horrenbestez, 353. eredia aurkezteak ez ditu Kontzertu Ekonomikoko arauak aldatzen, ez zerga-administrazio bakoitzari dagozkion zenbatekoen ordainarazpenari dagokionez, ez Administrazio bakoitzari dagokion zerga-ehunekoari dagokionez ere. Hau da, alde batera utzita aurkezpena banakako aitortpenen berezko eredu batean egitea edo erakunde taldeen aitortpenei dagokien ereduan egitea, inoiz ez da Administrazioen arteko zenbatekoen transferentziarik izango, ezta Administrazio horietako bakoitzari dagozkion zerga-ordainketaren ehunekoaren aldaketarik ere». Gatazkaren sustatzailea izan den Foru Aldundiak erantsi du «argitzeko eskaera horren inguruko erantzunik jaso ez zenez, akta hau truketik kanpo utzi zela Bizkaiko Foru Aldundi honi eskatutako zenbatekoen arrazoiak azaltzen zituen txosten bat aurkeztu arte, baina inguruabar hori ez dela gertatu oraindik, ezta Bizkaiko Foru Ogasuneko zuzendari nagusiak igorritako inhibizio-errekerimenduaren jakinarazpenari erantzuteko ere».
- d) Azken batean, Bizkaiko Foru Aldundiaren ustez, «erreferentziazko zerga-ordaintzaileari dagokionez akta bakarren trukearen inguruan Zerga Administrazioko Estatu Agentziak egindako diru-erreklamazioa ez dago justifikatuta, ez delako inolako azalpenik eman lurralde bakoitzean egindako eragiketa kopuruaren ehunekoaren aldaketa egiteko erabili den moduari buruz».

«Eta, amaitzeko, Bizkaiko Foru Aldundiak adierazi du gure ordenamendu juridikoak eskatzen duela eskubide bat kontuan hartzea nahi duenak frogatu egin behar duela, eta Zerga Administrazioiko Estatu Agentziak inolako frogarik aurkeztu ez duenez, Bizkaiko Foru Aldundi honek uste du ez dela bidezkoa aipatutako eragiketa kopurua aldatzea aldaketak oinarritzat hartzen dituen aurrekariak eta zuzenbideko oinarriak justifikatu ez direlako».

4.- Zerga Administrazioiko Estatu Agentziak eta Euskal Autonomia Erkidegoko foru-aldundiek egindako bileraren akta sinatu zen 2016ko ekainaren 27an, 2006ko maiatzaren 18an lantaldeek hartutako erabakietan adostutakoa betetzeko akta bakarrei eta Zerga Kontrolari dagokien zatian (2014. urtea); izan ere, akta horren 3. zenbakian honako hau jasotzen da hitzez hitz: *Erabaki da 1. ERAKUNDEA erakundearen 2008-2010 aldiko BEZari buruzko AAA-00000000 Txostenetik (2013an hasitakoa) Estatuari ez dagokiola inolako zenbatekorik kobratzea foru-ogasunen aurka.*

5.- Ogasuneko zuzendari nagusiak joan den ekainaren 29an hartutako Erabakiaren berri eman zitzaion Arbitraje Batzordeari 2016ko ekainaren 30eko idazki bidez. Erabaki hori Koordinaziorako eta Laguntza Teknikorako zuzendariordeak egindako proposamenarekin bat etorri hartu zen, eta erabaki horren bitartez alde batera utzi da Zerga Administrazioiko Estatu Agentziaren aurka 2015eko abenduaren 29an jarritako 53/2015 gatazka, beti kontuan hartuta “Zerga Administrazioiko Estatu Agentziak uko egin diola akta horiei buruzko zenbatekorik Bizkaiko Foru Aldundiari erreklamatzeko asmoari, eta horregatik, erreferentziazko arbitraje-gatazkaren xede den bat-batean sortutako galera izan dela Zerga Administrazioiko Estatu Agentziak bere iritzia aldatu duelako, aipatutako Aktan biltzen denaren arabera(...). Beraz, Bizkaiko Foru Aldundiaren atzera egitea adostuko litzateke, sortutako gatazkari dagokionez”.

6.- 2016ko azaroaren 4ko bilkuran, Arbitraje Batzordeak gatazka izapidetzeko onartu du, eta Zerga Administrazioiko Estatu Agentziarekin bat-batean lortutako akordioa dela medio, Bizkaiko Foru Aldundiak aurkeztutako atzera egitea

kontuan hartuta bidezkoa da, izapide gehiago egin beharrik izan gabe, bilkura honetan bertan ebaztea.

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Gatazka hau Bizkaiko Foru Aldundiak proposatu du Estatuko Administrazioak 2015eko uztailaren 13an igorritako txosten bidez Bizkaiko Foru Aldundiari egindako diru-erreklamazioarekin ados ez dagoelako, 2013ko ekitaldian formalizatutako akta bakarretan lurralde bakoitzean egindako eragiketa kopuruaren ehunekoaren aldaketaren oinarri diren gertakariak eta zuzenbideko oinarriak ez zaizkiolako justifikatu 1. ERAKUNDEA erakundeari. Aldaketa horiek 2008tik 2010era bitarteko ekitaldietako Balio Erantsiaren gaineko Zergari dagokionez egin dira.

2.- Zerga Administrazioko Estatu Agentziak ez zion erantzun Bizkaiko Foru Aldundiaren Ogasuneko zuzendari nagusiak adostutako inhibizio-errekerimenduari. Aipatutako errekerimendua 2015eko azaroaren 3an jakinarazi zitzaion Zerga Administrazioko Estatu Agentziako zuzendari nagusiarri. Nolanahi ere, hilabete batzuk geroago, 2016ko ekainaren 27an, Zerga Administrazioko Estatu Agentziak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Foru Aldundiek egindako Bileraren Aktan, Zerga Administrazioko Estatu Agentziak alde batera utzi du 2008tik 2010era bitarteko ekitaldietako BEZa dela-eta 2013an erakundeari eskatutako aktei dagokienez Bizkaiko Foru Aldundiari ezein zenbatekorik erreklamatzeko asmoa; horrenbestez, data horretatik aurrera arbitraje-gatazkaren xedea galdu da.

3.- Arbitraje Batzordearen Erregelamendua onartzen duen abenduaren 28ko 1760/2007 Errege Dekretuaren 8. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, «Arbitraje Batzordearen deialdiei, osaerari, bilkurei, erabakiak hartzeari eta funtzionamenduari eta prozedurari buruzko araubideari dagokionez, Herri

Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean ezarritakoa hartuko da kontuan; ulertuko da azken erreferentzia hori ere aplikatuko zaiela urriaren 1eko 39/2015 Lege berriaren (Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearena) xedapenei, joan den urriaren 2tik aurrera indarrean dagoen xedapen indargabetzailearen 3. zenbakian (azken xedapenetatik zazpigarrena) esanbidez ezarritakoaren arabera». Hala eta guztiz ere, 30/1992 Legearen bigarren xedapen iragankorra nahiz 39/2015 Legearen hirugarren xedapen iragankorra betez, «Lege hau indarrean jarri aurretik hasitako prozedurei ez zaie lege hau aplikatuko eta aurreko araudiari jarraituko diete»; horrenbestez, prozedura honi aplika dakioken araudia aipatutako lehenengo arauan aurreikusitakoa da.

4.- 39/2015 Legearen 84. artikularekin bat datorren 30/1992 Legearen 87. artikularen arabera, honako hauek amaituko dute prozedura, besteak beste: eskaeraren edo uziaren ebazpena eta atzera egiteak, eta «bat-batean gertatutako kausak direla-eta sortzen den jarraitzeko ezintasun materialak ere eragin dezake prozeduraren amaiera», eta beti arrazoitu behar da emandako ebazpena.

«Prozeduraren xedearen bat-bateko desagerpena gertatzen den kasuetarako, [hori amaituko duen] ebazpena kasu bakoitzean ematen den baldintzaren aitortzean datza, gertatutako jazoeren eta arau aplikagarrien adierazpenarekin» (30/1992 Legearen 42.1 artikulua eta 39/2015 Legearen 21.1 artikulua).

5.- Kasu honetan, Zerga Administrazioeko Estatu Agentziak bere iritzia aldatu duenez 2016ko ekainaren 27an hartutako erabakian, Zerga Administrazioeko Estatu Agentziak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Foru Aldundiek egindako bileraren aktan biltzen denaren arabera (Cfr; *supra*, 4. aurrekaria), desagertu egin da bi administrazioen artean zegoen desadostasuna, eta, horregatik, desagertu egin da Bizkaiko Foru Aldundiak hasitako arbitraje-prozeduraren xedea.

Horrenbestez, Arbitraje Batzordeak honako hau

ERABAKI DU

1.- Jardunak amaitzea eta artxibatzea; izan ere, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Zerga Administrazioiko Estatu Agentziaren artean adostutako hitzarmenak eztabaidaren bat-bateko desagerpena eragiten du eta, horrekin, gatazka honen xedearena.

2- Ebazpen hau Bizkaiko Foru Aldundiari eta Zerga Administrazioiko Estatu Agentziari jakinaraztea.